



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko irailaren 29a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ingelesez Ikasteko Programa ezar, hezkuntza-eskaintza handitu eta eraikin berri bat eraiki dezan Cintruenigoko La Paz Institutuan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako Pablo Sarasate BHIRako aurreinskripzioa baino lehenago aurreikusitako hasierako eskolatzeko-eskaintza mantentzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aurkez ditzan irakasleen aurkako eraso-erantzuraz egindako analisian eta arazoari aurre egiteko neurriak. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da KiVa metodoa azter dezan, gure irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko. Mozioa erretiratzea (3. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Kontseiluaren kide bat hautatzea. (4. or.).
- Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. (4. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ingelesez Ikasteko Programa ezar, hezkuntza-eskaintza handitu eta eraikin berri bat eraiki dezan Cintruenigoko La Paz Institutuan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko irailaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ingelesez Ikasteko Programa ezar, hezkuntza-eskaintza handitu eta eraikin berri bat eraiki dezan Cintruenigoko La Paz Institutuan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ingelesez Ikasteko Programa ezar dezan Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako La Paz institutuan, dagoeneko programa hori ezarrita duen Otero de Navascués ikastetxe publikotik datozen ikasleek programa horretan egoten jarraitu ahal izateko.

2. Institutu berria eraiki edo Cintruenigoko La Paz institutuaren egungo eraikina handitu dezan.

3. Cintruenigoko La Paz BHIaren hezkuntza-eskaintza handitu dezan".

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako Pablo Sarasate BHIRako aurreinskripzioa baino lehenago aurreikusitako hasierako eskolatzeko eskaintza mantentzeko dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko irailaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako Pablo Sarasate BHIRako aurreinskripzioa baino lehenago aurreikusitako hasierako eskolatzeko eskaintza mantentzeko dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lodosako Pablo Sarasate BHI-

rako aurreinskripzioa baino lehenago aurreikusitako hasierako eskolatzeko eskaintza mantentzeko dezan, honako hauek osatzen dutena: DBHko 1. mailako hiru talde, DBHko 2. mailako hiru talde, DBHko 3. mailako bi talde, DBHko 4. mailako bi talde, Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programako 2. mailako talde bat, Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programako 3. mailako talde bat eta Curriculum Egokituaren Programako talde bat".

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aurkez ditzan irakasleen aurkako eraso-erabakia buruz egindako analisia eta arazoari aurre egiteko neurriak.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko irailaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aurkez ditzan" irakasleen aurkako eraso-erabakia buruz egindako analisia eta arazoari aurre egiteko neurriak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du abenduan aurkez ditzan, Legebiltzarrean, irakasleen aurkako eraso-erabakia buruz egindako analisia eta arazoari aurre egiteko indartu edo ezarri nahi dituen neurriak.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du kanpaina instituzional bat egin dezan, irakasleek gizartean egiten duten lana eta guztiok zor diegun errespetua aitortzekoa."

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da KiVa metodoa azter dezan, gure irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko irailaren 21ean egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoe-la María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen KiVa metodoa azter zezan, gure

irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko, eta 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontseiluaren kide bat hautatzea.

Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Kontseiluaren kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea 2016ko urriaren 13ko 19:00ak arte luzatzea.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea.

Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea 2016ko urriaren 13ko 19:00ak arte luzatzea.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza